

**LEHENDAKARIAREN AGERRALDIA
COMPARECENCIA DEL LEHENDAKARI**

2024-02-22 Vitoria-Gasteiz 22-02-2024

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburuok, jaun andreok, arratsalde on eta eskerrik asko gure deialdiari erantzuteagatik!

Gaur Gobernu Kontseilua izan dugu. Ondo dakizuenez berezia izan da.

Eusko Legebiltzarrean aurreratu nuen bezala, datozen hauteskundeetako data jartzeko hiru irizpide hartu ditut kontutan:

- Onartu eta gizartearekin konprometitu genuen Gobernu-programa betetzea;
- Hurrengo Eusko Jaurlaritzari eta Lehendakariari ahalik eta legaturik onena uztea; eta
- Euskal gizartearen interes orokorra defendatzea.

Gaurko Gobernu Kontseiluan sailburuekin irizpide hauek partekatu ondoren, honako erabakia hartu dut: Hauteskundeak apirilaren 21ean izango dira.

Horrela izan dadin Dekretua 54 egun lehenago argitaratuko da. Hau da, datorren otsailaren 27an.

Erabaki hau Legebiltzarreko presidenteari eta legebiltzar taldeetako ordezkarietara komunikatu diet dagoeneko.

Tras la deliberación mantenida hoy en el Consejo de Gobierno, he tomado la decisión de convocar las Elecciones al Parlamento Vasco el 21 de abril.

He comunicado esta decisión a la Presidenta del Parlamento Vasco, así como a las y los responsables de los partidos políticos con representación parlamentaria.

El 15 de diciembre de 2012 juré mi cargo como Lehendakari en Gernika...

Lo digo con sinceridad: jamás habría imaginado mayor honor... He procurado ser siempre fiel a la dignidad que, tanto el Parlamento como el Gobierno Vasco, merecen como máximas instituciones representativas de la sociedad vasca.

Euskal gizartearen aurrean lan gogorrean, zorrotasunean eta erantzukizunean oinarritutako konpromisoa hartu nuen 2012garren urtean. Aitortzen dut: ez nuke sekula imajinatuko horrelako ohorea izatea.

Momentu hartan esandako hitz hauek gogora ekartzen ditut: "Akordioa bilatzea izango da nire helburua. Euskal Herriak, bere historian zehar, erronka asko izan ditu, eta argi dugu etorkizunera begira dituenak zeintzuk diren. Espero dut, denon artean, Euskadiren autogobernua indartzeko ekimenean eta lanean arituko garela".

Eta gehitu nuen: “Hitza ematen dut, beraz, nire hoberena emango dudala denok akordioetara iristeko. Gainera, nire nahia da hiritar guztiek sentitu dezatela politikariok benetan euskal gizarteari zerbitzu zintzoa ematen ari garela”.

Urte hauetan guztietan ideia hauek mantendu ditut. Euskadi eta euskal gizartearen interesak beste guztiaren gainetik defendatu ditut. Zintzotasun osoz. Akordioaren bidea jorratuz.

Nire onena ematen saiatu naiz.

Konpromiso hori bera eskatu diet nirekin lan egin duten sailburu eta beraien taldeko pertsona guzti-guztiei. Hori izan da beti gure iparorratza.

Nire lehen aitortza eta esker ona euskal gizartearentzat da. Ez ditugu urte errazak bizi. Krisiak bata bestearen atzean pilatu zaizkigu etxeko atean, ondorio zuzen eta oso larriekin gainera.

Gizartearen ahalegina txapela kentzekoa izan da. Erakutsitako konpromisoa gogo biziz txalotzen dugu.

Bigarrenik, Legebiltzarkide eta Legebiltzarreko langile guztiei.

Honekin batera, Eusko Jaurlaritzan lan egin duten pertsona eta lan talde guzti-guztiei nire esker ona eta aitormena.

Esker emate hau Gobernakide guztientzako da eta, denon izenean, Sailburuak aipatuko ditut:

Eskerrik asko Josu Erkoreka, Arantxa Tapia, Juan Mari Aburto, Ricardo Gatzagaetxebarria, Cristina Uriarte, Estefania Beltran de Heredia, Jon Darpon, Ana Oregi; Angel Toña, Beatriz Artolazabal, Iñaki Arriola, Pedro Azpiazu, Nekane Murga, Alfredo Retortillo, Sonia Perez, Bingen Zupiria, María Jesús San Jose; Idoia Mendia, Olatz Garamendi, Jokin Bildarratz, Gotzone Sagardui, Javier Hurtado eta Nerea Melgosa.

Astlehenean lan bilera bat izan nuen Andoni Ortuzar, Euzko Alderdi Jeltzaleko presidentearekin eta Eneko Andueza, Euskadiko Alderdi Sozialistaren idazkari nagusiarekin.

Azkeneko lau urte hauetan egindako ibilbidea baloratu genuen.

Bai Jaurlaritzan eta baita beste erakundeetan egindako lana eta lortutako emaitzak aztertu genituen.

Bi Alderdi ezberdin gara, baina lankidetzan izan dugu hizpide.

Mi primer reconocimiento y agradecimiento es a la sociedad vasca...

Hemos vivido momentos de gran dificultad... Crisis que se han sucedido una tras otra...

Nunca me he permitido que esta espiral de crisis y dificultades fuera una excusa para NO hacer nuestra labor de la mejor manera posible.

Nuestra obligación ha sido siempre ofrecer respuestas y obtener resultados. De ello depende el bienestar de nuestras vecinas y vecinos.

En este tiempo, la sociedad ha mantenido la confianza en el Gobierno Vasco... Legislatura a legislatura hemos sentido crecer ese depósito de confianza...

Lo agradezco en mi nombre y en el de todas y cada una de las personas que me han acompañado en esta tarea...

Superando nuestras diferencias, y siempre a través de la discreción y el acuerdo, tanto el Partido Nacionalista Vasco como el Partido Socialista de Euskadi hemos compartido Estrategia y Objetivos de País... La defensa de los intereses de Euskadi por encima de todo.

Hemos avanzado.

El Autogobierno se ha extendido con once nuevas competencias y el Gobierno Español ha asumido, por primera vez, el compromiso de culminar el Estatuto de Gernika.

Hemos fortalecido el Concierto Económico. Contamos con un Protocolo de colaboración con la Comunidad Foral de Navarra y un Memorándum de Entendimiento con Iparralde... También con Memorándums con socios estratégicos en el mundo... Hemos impulsado Pactos sociales en Euskadi y nos hemos adherido a objetivos de Organismos Internacionales.

Hemos aprobado un total de 121 leyes estas tres legislaturas. En un 85% de los casos ampliando el acuerdo más allá de los partidos que sustentan el Gobierno. Esto es, con el concurso de algún partido de la oposición.

Y, en todos los casos, con la participación y aportaciones de los sectores concernidos y las asociaciones y entidades de la sociedad.

Este es el sentido de la política: diálogo y entendimiento entre diferentes. Estabilidad. Lograr puntos de encuentro por el bien de la sociedad. Tratando de representar, de la mejor manera posible, la diversidad de nuestro País.

Aurrera egin dugu. Aurrera egin dugu ongizatean, bizi-kalitatean, autogobernuan...

Euskadi Basque Country munduan hobetu kokatu dugu...Izena eta izana dugu mundu zabalean.

Gure Herritik ateratzen garenean interesez eta errespetuz hartzen gaituzte munduan...

Nazioarteko 144 saretan parte hartzen dugu. Harreman zuzena dugu Europako erakundeekin. Euroeskualdea bultzatu dugu. Nazio Batuek "Lokal 2030" erakundearen egoitza Euskadin kokatzea lortu dugu. Makroeskualde Atlantikoaren proiektua gauzatzeko pausu sendoak ematen ari gara...

Harrotasunez ikusten dugu gure Herriaren izen ona lau haizetara nola zabaltzen ari den.

Nuestro norte ha estado marcado siempre por el compromiso con las personas...

Recuerdo a las que hemos perdido a lo largo de estos años... Un primer recuerdo muy especial con Joaquín y Alberto, fallecidos en el derrumbe del vertedero de Zaldibar...

Un recuerdo a todas las personas que perdieron la vida durante la pandemia, especialmente quienes no pudieron verse acompañadas por sus seres más queridos...

Sentimos ese dolor. Fueron, sin duda, uno de los momentos más complicados que nos ha tocado vivir.

Recuerdo también a todas las mujeres asesinadas o maltratadas. Seguiremos trabajando por una sociedad que destierre la lacra de la violencia contra las mujeres,

que respete y practique la igualdad efectiva entre mujeres y hombres... ¡Qué decir de la denominada violencia vicaria!

El compromiso con las personas lo hemos aplicado cada día, con tesón, para alcanzar los Objetivos de País que han guiado nuestro trabajo... No los citaré todos.

Sí destaco que en diciembre de 2013 trabajaban en Euskadi 875.161 personas y a finales del pasado año eran 1.012.947...

Todas y todos tenemos derecho a trabajar y hacerlo en las mejores condiciones posibles... Hemos contribuido a ello. Debemos seguir mejorando.

Hablamos de personas autónomas. De personas que trabajan en cooperativas o en la economía social; en pequeñas, medianas o grandes empresas. Este tejido productivo nos permite progresar, crecer y lograr recursos para garantizar los servicios públicos a la ciudadanía...

La salud, la educación, la protección social, la seguridad, la movilidad, la actividad cultural o deportiva son la base del bienestar de una sociedad, son nuestro bien común...

Agradezco la labor de todas y todos los servidores públicos que se dedican cada día a atender, formar o proteger a nuestras vecinas y vecinos.

Termino.

Resumo en tres ideas los principales hitos de estos doce años. La primera es EMPLEO; la segunda SUPERACIÓN; la tercera, RESPETO, COHESIÓN y CONVIVENCIA.

EMPLEO.

Reducir la tasa de paro es una tarea difícil, más todavía en un contexto de crisis y guerras. Ha sido un gran logro colectivo. Hemos respondido a la principal inquietud de la ciudadanía.

SUPERACIÓN.

Hemos vivido una concatenación de crisis y guerras gravísimas, inéditas y globales.

Salimos fuertes de esta coyuntura. Fuertes en equilibrio social, fuertes en actividad económica e industrial y fuertes para seguir mejorando nuestros servicios públicos.

RESPETO, COHESIÓN Y CONVIVENCIA.

En Euskadi vivimos en PAZ. Hemos dejado atrás la pesadilla del terrorismo y la violencia. ETA ha desaparecido de nuestras vidas para siempre.

Vivimos sin la barbarie, sin ver hijas e hijos llorando porque están enterrando a su madre o a su padre. Ha llegado con muchas décadas de retraso y todavía queda mucho por hacer para que nunca vuelva a germinar el odio y la violencia en nuestro Pueblo.

Recuerdo hoy, cada día, a todas las víctimas del terrorismo y la violencia. Nuestra solidaridad permanece como recuerdo y denuncia de una injusticia que jamás se debió producir y que nunca más se debería repetir.

Es un honor poder legar una Euskadi más avanzada y más justa a quienes nos sucederán. Una Euskadi asentada en los valores del respeto, la cohesión y la convivencia.

Lo reconozco como lo siento: he trabajado lo mejor que he sabido. Buscando en cada decisión, en cada momento, lo que sinceramente creía mejor para nuestra sociedad.

Espero haber procedido con el debido respeto, así lo he intentado siempre.

Pido perdón por mis errores y doy las gracias a Euskadi por todo lo que me ha dado.

Gaur ez da ezer amaitzen. Azken egunera arte jarraituko dugu dugun hoberena ematen.

Duela hamabi urte Agirre lehendakariak 1936ean ezarritako helburua nirea egin nuen: “benetako askatasunean, demokrazian eta justizian oinarritutako bizitza berreskuratzea”.

Askastasuna, Demokrazia eta Justizia. Gure Herriak gure onena ematea merezi du.

Bidea elkarrekin egin behar dugu, AUZOLANA hitz bat baino gehiago baita, gure Herriaren kulturen txertatuta dagoen lan egiteko eta bizitzeko EREDU bat da.

Ohorea izan da ibilbide hau zuekin guztiekin egitea.

Bihotz-bihotzez eskerrik asko!